

## ZUGATZAK INGURUAN

*Etxaldean bearrekoa da zugaitza. Igali edo fruta zugaitzak batez ere ederki ematen dute, poza ta bizi-nai sorturik. Sendiak bezela etxe inguruak ere tantai gaztez jantzita... Onek dakarkigu, alegia, baserrian bizitzeko garramura ta go-goa. Guretako koloreetan ederrena orlegia, berdea.*

Doiñu: « I riyaren a    »),

Norbere lurra —gizalege da—  
arretaz dugu jagoten:  
aita-amagandik erentzi utsez  
artua dut nik gozaten:  
etxe-bazter au muiño gaiñean  
aurrekoak jaso zuten:  
osorik dut nik aiek jaikia,  
etxe, mendi ta lur lerden.

Erentzi ori nekazariak  
kontuz sorosi hear du,  
odol-katea eluke egundo  
zikiñez bear erdoitu (1);  
euskal bazterra, zuri ta eder,  
ibar ta troka inguru,  
begi-niniak, biotz-ondoak  
dizkigu beti alaitu.

Baserriari jasik (2) onena  
zugaitz ezeak darnalo,  
ugazaharen ardura fiña  
ortan ongi datorkio:

---

(1) Ondatu.

(2) Ganora.

sagar, madari, maats, melokotoi,  
ur, piko ta marabio (3)  
biran ditula, euskal etxea  
nori eder ez dakio?

Zugatzok berriz ekarkor dira,  
pixkat saiatuz gero;  
ale ederrik badut nik beintzat  
maiatz azkena ezkerex:  
gerizak gorri --aurtxoak aiña—,  
aranak ori, urtero;  
uda eltzean, sagar, madari  
jateko dut goizero.

Nola dirade nere aurtxoak  
ainbestetan muxu gorri?  
Zerk uste duzu, igalik ezik,  
eman diotela ori?  
Osasun margoz borbor badira  
ez die zorrik iñori:  
bai orde unero irensten duren  
sagar, madari ta ikori.

Nik beraz nitun arras ugari  
igali zugaitak jarri,  
ingurumari ondo aitzurtu,  
simaur, ote, eman ongarri,  
uxaraz baita zenbait zomorro  
ta zizari kaltegarri;  
orla didate otarka legez  
jan-ale emea ekarri,

Euskal errian lenago artan  
gure baserri bakoitzak  
landatzen zitun inguru bira  
ainbat motako zugaitzak;

aspaldi, baiña, dagona kendu  
ta zabarrak, oarkaitzak  
izan zaizkigu, tamal aunditan,  
lur-langille neke-gaitzak.

Dirua gura? Eraman txairo  
azokara otar mean  
anpolai gorri, aran oriak  
ta bruñoiak uztaillean;  
iransagararak, ur eta intxaurreak,  
udareak iraillean,  
sagar, mizperak, ta maats-morkoak  
txiki ta aundi urrillean.

Eperrak !canta soroan xotil,  
zugaitzak itzal etxean,  
eguzki antzo irripar berriz  
igaliz bete danean.  
Ni ere berdin ager nakion  
Goiari egin-alean  
tantai antzeko gaiñez dudala  
esker ona biotzean,

Orrez gaiñera izadiari  
nik orobat lagundurik,  
jantzi ditzadan etxe inguruak  
landare berriz gogotik;  
negu eltzean ola izango dut  
jateko ale fruturik,  
eta umetxoak —iru larrosak  
masaillak oso gorririk.